



# BERTA(N) BERTAKOA

GOIZUETA(N)

HERRIKO KOMERTZIOEI LAGUNTZEKO

## BONO SISTEMA

GOIZUETA  
  
izaera eta izatea



# HELBURUA

- ▶ Covid-19a dela ta konfinatuta egon garen garaian behin eta berriz luzatu dugu elkar zaintzearen mezua eta beharra. Horretan parte garrantzitsua izan dute herriko komertzioek, zeinak demostratu diguten **herrian beharrezko zerbitzu guztiak** ditugula, ez zaigularik ia deus falta izan (janaria, botikak...).
- ▶ Alde batetik **herriko komertzioetan kontsumitzen segitzeko ohiturari eusteko**, eta bestetik, konfinamendu garaian ixtera behartuta egon diren **komertzioei esku bat botatzeko**, herriko kontsumoa aktibatuko duen sistema ezarri nahi da herrian.
- ▶ Horrela, egitasmo honekin **herritarrek erosketak herrian egitea bultzatu** nahi da. Udalak diruz lagunduko dituen bonoen bidez, Covid-19aren osasun krisiagatik kaltetuak izan diren **komertzioei lagundu** eta **herritarrengan herrian kontsumitzeko garrantziaz kontzientzia sortzea** da egitasmo honen helburua.
- ▶ Modu honetara, herritarrek **20 euroren truke, 5 euroko bost bono** eskuratu ahalko dituzte. **Udalak** 25 euro horiek osatzeko falta diren **5 euroak jarriko ditu**. Denera **300 sorta** banatuko dira.
- ▶ Guztira **1500 euroko inbertsioa** egingo du Udalak, jakinik diru hori eta honek sortuko dituzten **7500 euroak herrian bertan** geldituko direla.



# EGITASMOAREN EZAUGARRIAK

Herritarrek **5 euroko 5 bono** eskuratuko dituzte 20 euroen truke.

(Udalak jarriko ditu sorta bakoitzeko 5 euroak)



# Non erabili daitezke bonoak?

Bonoak **Goizuetako komertzioetan** erabili ahal izango dira:

- ▶ Zubidenda
- ▶ Coviran
- ▶ Harategia
- ▶ Farmazia
- ▶ Estanko eta arropa denda
- ▶ Izkina
- ▶ Mutu
- ▶ Zubiondo
- ▶ Oxeguarda
- ▶ Ixkibi
- ▶ Irati ileapaindegia
- ▶ Kiribil ileapaindegia

# Datak:

- ▶ Bonoak honako **egun hauetan eskuratu** ahalko dira, Udaletxeko orapean:
  - ▶ Uztailak 10, arratsaldeko 18:00-20:00
  - ▶ Uztailak 11, goizeko 10:00-13:00
- ▶ Bonoak 2020ko **uztailaren 13tik abuztuaren 30 arte** erabili edo gastatu ahalko dira (bi egun horiek barne). Epe hau igarota, bonoak bere balioa galduko dute eta ezingo dira itzuli edo erabili.

UZTAILA						
A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

ABUZTUA						
A	A	A	O	O	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

# Bonoak eskuratzeko baldintzak:

- ▶ Soilik **Goizuetan erroldatutakoek** eskuratuko dituzte bonoak.
- ▶ **16 urtetik gorako** herritarrek erosi ahalko dituzte (16 urte beteak).
- ▶ Herritar bakoitzak **gehienez bi bono sorta** erosi ahalko ditu. Hau da, gehienez 40 euro gastatu eta 10 bono (50€ bonotan) eskuratu ahal izango ditu.
- ▶ Bonoak erosterakoan, norberak bere sorta eta **beste 3 pertsonena** ere erosi ahalko ditu gehienez, hau da, guztira 4 bono sorta, betiere beste 3 pertsonen NAN-a erakutsi eta hauen datuak ematen baditu.

# Bonoak erabiltzeko baldintzak

- ▶ Bono hauek erabili ahal izateko, erosketak, **gutxienez, 5 eurokoa** izan beharko du. 5 euro azpiko erosketetan ez da dirurik itzuliko.
- ▶ Bono hauek banaka edo batera erabili ahalko dira, baina **gehienez**, erosketa bakoitzean, herritar bakoitzak **5 euroko 5 bono (25€ bonotan)** gastatu edo erabili ahalko ditu.
- ▶ Bonoak **ezin dira eskudirutan trukatu**, eta ez da inola ere itzuliko balio horren zenbatekoa.
- ▶ Bonoak **abuztuaren 30 arte** erabili beharko dira. Hortik aurrera ez dute baliorik izango.

ESKERRIK ASKO  
GOIZUETAN EROSTEAGATIK